

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ERAIKUNTZA-PROIEKTU ETA -OBREN KOSTUEN SEGIMENDUA ETA EGUNERAKETA	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0651		
Lanbide-arloa	ERAIKINGINTZA ETA OBRA ZIBILAK		
Lanbide-eremua	Obra-proiektuak eta -segimendua		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Eraikuntza-proiektu eta -obren kontrola	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Eraikuntza-kostuen kontrola	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Kostuak obretan eta proiektuetan	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0875_3 ERAIKUNTZA-KOSTUEN KONTROLA PROZESATZEA gaitasun-ataleko LB5, LB6 eta LB7 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Eraikuntza-sektoreko hornitzaileei ordaintzeko prozedurak deskribatzea, zatiak eta ordainketa-epe ohikoak zehaztuz.
- EI1.1 Eraikuntza-obretako ziurtagirien ordainketa zatikatzeko prozedura deskribatzea, eta behar bezala interpretatzea ziurtagiri-prozesuko terminoen esanahia.
 - EI1.2 Ziurtagiri-ordain egitura deskribatzea, eta orri horretako kontzeptuak nola ordenatzen diren zehaztea.
 - EI1.3 Fakturatzeko eta kobratzeko prozedura deskribatzea, eta epea eta ohiko terminoak identifikatzea.
 - EI1.4 Fakturatzeko edukiak deskribatzea.
 - EI1.5 Kalkulatutako ziurtagirien eta hornitzaileek (azpikontratatistek) aurkeztutako zerrenda baloratuen artean gertatzen diren desbideratze ohikoak azaltzea.
 - EI1.6 Obra-bukaerako ziurtagiria nola formalizatzen den deskribatzea, eta atxikipenak itzultzeko ohiko prozedura zehaztea.
- A2: Proiektuan egindako aldaketek kostuen kontrolari nola eragiten dioten aztertzea, erabakietarako prozedurak eta haiekin lotutako dokumentazio deskribatzea, eta unitate berriak baloratzeko irizpideak formulatzea.
- EI2.1 Aldaketen/berrikuntzen/erreklamazioen ohiko arazoak azaltzea.
 - EI2.2 Erabakietarako prozedura deskribatzea, proiektu batean egindako aldaketek eragindako gastuen kontrolari dagokionean, proiektuarekin lotutako dokumentazioa identifikatzea, eta bezero pribatuak eta administrazio publikoa bereiztea.
 - EI2.3 Eraikuntzako aldaketa ohikoak baloratzeko irizpideak zehaztea.
 - EI2.4 Aldaketak kontratuan formalizatze prozesua deskribatzea, bai eta erreklamazioekin eta kalte-ordainekin lotutako arriskuak deskribatzea ere.
- A3: Ziurtagiriak, kostu-orriak eta txostenak egitea, kalkulu-orriak eta neurketak egiteko aplikazio informatikoak erabiliz.
- EI3.1 Kontu-orriak deskribatzea, ilaretako eta zutabeetako edukia eta xehetasun-maila identifikatzea, eta azaltzea nola erabiltzen diren aurrekontuko aurreikuspenen eta proiektuaren eboluzio errealearen artean dauden aldeak neurtzeko.
 - EI3.2 Proiektu baten eboluzioa zehazteko kostuen txosten eta grafiko ohikoak deskribatzea, eta irudikatu beharreko aldagaiak identifikatzea.
 - EI3.3 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan eraikuntza- edo urbanizazio-proiektu/-obra baten kasu praktiko batean, kontuan hartuz informazio hau daukagula aplikazio informatiko espezifiko batean bilduta: bezeroaren beharrak, ratioei buruzko informazio osagarria, eta prezioei eta neurketei buruzko datu-baseak:
 - Ziurtagiri bat prestatzea, abiapuntuko neurketak eta aurretiko ziurtagiria oinarri hartuz.
 - Hileroko ziurtagiri bat izanik, kostu-orri bat eta hari lotutako txosten bat prestatzea.
 - Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dituen kasu praktiko batean, obra bateko ohiko grafikoak egitea, kostuei/kobrantzei eta ziurtagiriei (aurreikusiak/errealak, hilerokoak eta metatuak) dagokienez.

Edukiak

1. Kostuen segimendua.

- Kostuak berraztertzea.
- Kausak: bezeroaren eskaera, proiektuaren akatsa, kontratazio-akatsa, gauzatze-akatsa, gertakizunak.
- Erabakiak: aldaketak, berrikuntzak, erreklamazioak; bezero publiko eta pribatuaren arteko aldea.
- Prezio kontrajarriak.

- Aldaketak baloratzeko irizpideak: kontratuko prezioak, kontratuko deskonposatuak prezio berriak osatzeko, merkatuko prezioak, administrazioko prezioak.
- Dokumentazioa: aldaketa-eskaerak, aldaketa-ordenak, desadostasunak, proiektuari buruzko argibideak, eta beste batzuk.
- Kostu-orriak.
- Funtzioa.
- Eraikuntzako kostu-orrien ohiko egitura.
- Xehetasun-maila.
- Kostuen txostenak.
- Proiektuaren aurrerakina.
- Aldagai periodikoak eta metatuak.
- Kostuak kontrolatzeko kurbak eta grafikoak.
- Kostuen txostenen ohiko edukia.

2. Eraikuntzako ordainketa-prozeduraren jarraipena.

- Ziurtagiriak.
- Kontzeptuak: aurrekontua, ziurtagiria, biltegirako aurrerakinak, atxikipenak, kenkariak, indizeak aplikatzearen ondoriozko eguneratzea, ziurtagiri partzialak eta lan guztiarenak.
- Ziurtagiri-orria.
- Ziurtagiriak aurkezteko epeak.
- Proiektuaren irismenean egindako aldaketak eranstea.
- Obra-bukaerako ziurtagiria.
- Fakturazioa.
- Prozesua.
- Fakturen edukia: ohiko terminoak, identifikazio-datuak, kontzeptuak.
- Epemugak.

3. Berrikuntza teknologikoak eta antolakuntzakoak eraikuntza-kostuen segimenduan eta eguneraketan.

- Ezarri berri diren aplikazio eta ekipo informatiko eta telekomunikazioetako ekipoak.
- Inportazio- eta esportazio-formatuak kudeatzea.
- Testuak, grafikoak eta taulak editatzea.
- Kalkulu-orriak editatzea eta ustiatzea.
- Emaitzak aurkeztea.
- Irteera grafikoa.
- Artxiboa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0650 Kostuak obretan eta proiektuetan.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Eraikuntza-proiektu eta -obren kontrola.